



Esteribarko Udala, Zubiriko ikastetxearen birgaitze energetikorako emandako laguntza baten onuraduna izan da. Egindako inbertsioa 195.906,92 €-koa izan zen, eta emandako laguntza 79.271,84 €-koa.

Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko Ministerioak (Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutua) diruz lagundu du obra hori, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuko (IDAE) zuzendari nagusiaren 2020ko irailaren 29an jakinarazitako ebazpenaren bidez lehendik dauden eraikinen birgaitze energetikoko jarduketetarako laguntza-programaren barruan (PAREER II).

Lehendik dauden eraikinen birgaitze energetikorako jarduketetarako laguntzen lerroari atxikitako proiektua da, Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) kofinantzatua eta Energia Efizientziaren Funts Nazionalaren kargura IDAEk kudeatua, ekonomia garbiagoa eta iraunkorragoa lortzeko helburuarekin.

Laguntza horien helburu nagusia da dauden eraikinen berokuntzan eta klimatizazioan energia-eskaera murriztea, inguratzaille termikoaren energia-eraginkortasuna hobetuz eta instalazio termikoen energia-kontsumoa murriztuz, kasu honetan, argiztapenarena.

Horretarako, Udalak eraikinaren ingurutzaila berritzeko obrak egin ditu (estalkia eta leihoak), eta barruko argiztapen-sistema LED teknologiadun sistema batekin ordezteko.

Ondorioz, urteko 23.095 kWh energia aurreztu da, eta eraikin horren kalifikazio energetikoa B batetik A batera pasatu da CO2 isurietan.